

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko maiatzaren 22tik 28rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/25

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. - Dirulaguntzak.** - TMA/498/2021 Agindua, maiatzaren 21ekoa, zeinaren bidez aldatzen diren apirilaren 30eko 378/2020 Aginduan Estatuak abala emandako eta diruz lagundutako maileguak eskatzeko eta formalizatzeko ezarritako epeak, eta zeinaren bidez zehazten diren COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren 9. artikuluan ezarritako ohiko etxebizitzako maizterrentzako finantziazio-laguntza iragankorrak eskuratzeko irizpideak eta eskakizunak. [8657 xedapena - 3 or.](#)

2021/05/26

- **OGASUN MINISTERIOA. - Zergak.** - 366/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, finantza-transakzioen gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko prozedura garatzen duena eta beste zerga-arau batzuk aldatzen dituen. [8747 xedapena - 15 or.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BEREINTASUNAREN MINISTERIOA. - Enplegua.** - 368/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, mugako gaitasun intelektuala duten pertsonak laneratu daitezen sustatzeko ekintza positiboko neurriei buruzkoa. [8749 xedapena - 5 or.](#)
- Antolakuntza. - **369/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, honako errege dekretu hauek aldatzen dituena: 358/1991 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa, Espainiako Itsuen Erakundea (ONCE) berrantolatzekoa; 415/1996 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Espainiako Gurutze Gorria berrantolatzeko arauak ezartzekoa; 177/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, desgaitasunen bat duten pertsonen ondareko babesa emateko batzordearen osaera, funtzionamendua eta eginkizunak zehazten dituena; 1855/2009 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, Desgaitasunaren Estatuko Batzordea arautzen duena; eta 774/2017 Errege Dekretua, uztailaren 28koa, Hirugarren Sektoreko Plataformarekiko Elkarriketa Zibilerako Batzordea arautzen duena. [8750 xedapena - 12 or.](#)**
- Erljio Askatasunaren Aholku Batzordea - **371/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Erljio Askatasunaren Aholku Batzordea arautzen duen azaroaren 29ko 932/2013 Errege Dekretua aldatzen duena. [8751 xedapena - 4 or](#)**

2021/05/27

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Izaera pertsonaleko datuak.** - 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta

epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteko. [8806 xedapena - 50 or.](#)

- **GORTE NAGUSIAK. - Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2021eko maiatzaren 20koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko Erabakia. Horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira osasunaren, gizartearen eta jurisdikzioaren alorrean, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako infekzioen hedapenari eusteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren indarraldia amaitzean aplikatzeko. [8807 xedapena - 1 or.](#)

2021/05/28

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak.** - 11/2021 Errege Lege-dekretua, maiatzaren 27koa, enplegua babesteko, ekonomia berraktibatzeko eta autonomoak babesteko premiazko neurriei buruzkoa. [8877 xedapena - 30 or.](#)
- **OGASUN MINISTERIOA. - Finantza-transakzioen gaineko zerga.** - HAC/510/2021 Agindua, maiatzaren 26koa, 604 eredua (Finantza-transakzioen gaineko zerga. Autolikidazioa) onesten duena eta hori aurkezteko forma eta prozedura zehazten dituen. [8878 xedapena - 20 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA. - Osasun neurriak.** - SND/511/2021 Agindua, maiatzaren 27koa, zeinaren bidez luzatu egiten den SND/413/2021 Agindua, apirilaren 27koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiak irauten duen bitartean Indiako Errepublikatik Espainiara datozen pertsonen bete beharreko berrogeialdi-baldintzei buruzkoa. [8879 xedapena - 3 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/05/24

- LAN ETA ENPLEGU SAILA. - **EBAZPENA**, 2021eko apirilaren 26koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratu, gordailutu eta argitaratzen baita Jarraipenerako eta Bermerako Batzorde Paritarioak egindako akordioa, Hezkuntza Sailaren menpeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresen hitzarmen kolektiboaren 2021. urteko soldata-eta onartzen dituen (hitzarmenaren kodea: 86002235012003). [2959 xedapena - 3 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/05/24

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA.** - Batzar Nagusiak. - **BESTEAK.** - Huts-zuzenketa, apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauaren euskarazko testuan, tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duena. Zuzendua: 2021/1492. [1782 xedapena - or. 1.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/05/24

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA.** - COVID-19k sortutako krisiaren ondorioz Gipuzkoako turismo-sektoreari sostengua emateko laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia. [2103448 xedapena - 16 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/05/25

- **ERABAKIAK.** Kontseiluaren 2021/825 (EB) Erabakia, 2021eko maiatzaren 20koa, berriz ere luzatzen duena 2020/430 (EB) Erabakiaren bidez ezarritako Kontseiluaren Barne Araudiaren aldi baterako salbuespena, COVID-19aren pandemiaren ondorioz Batasunean bidaiatzeko dauden zailtasunak kontuan hartuta. [L 183/40 xedapena - 2 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO